

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko otsailaren 13a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera • Koipuak, aspaldiko karraskari ezezagunak

Asun Goikoetxea • Arcon bere lanak erakusten ari diren nafarretako bat

• LUIS AZANZA



Jimeno Jurioarekin berriketan

Jose Maria Jimeno Jurio historialariak Sabino Arana Kultur Elkargoaren saria jaso berri du, eta heldu den apirilean Eusko Ikaskuntzak beste bat emanen dio, esker ona adierazi nahirik hainbat urtetan euskal kultura eta tradizioak ikertu dituelako. Laudorioak gustuko ez dituen arren, hainbat gaiez, eta bereziki euskaraz, prestu aritu da hizketan.



Bera • Koipu zaharrek berri

Ugaztun horiek aspalditik daude Bidasoa ibaian, eta kalte handiak egiten dituzte baratzeetan

Azken egunotan han eta hemen hitz egin da koipuaz, arratoi handi baten itxura duen animalia ugaztunaz. Bidasoa, Baztan, Oiartzun eta Urumea ibaietan agertu dela aipatu bada ere, aspalditik bizi da gure artean animalia hori.



Bidasoa, Baztan, Oiartzun eta Urumea ibai bazterretan kalte handiak eragin ditu koipuk.

● ARTXIBOKOA

KAPROMIDOEN FAMILIAKO UGAZTUN karraskaria da koipua, uretan ibiltzen dena batik bat. Belarjalea da, baina zuhaitz eta landareak jan baino gehiago, baratzerantz jotzen du janari bila. Arazoa aspaldikoa da Baztan-Bidasoa eskualdean. Baratzeetan nahasmen ugari sortu izan du metro bateko luzera eta hamar kiloko pisua izatera irits daitekeen animalia horrek. Azken aldian, nekazari, baserriar eta baratze jabeek euren baratzeen inguruan sare bereziak jarri behar izan dituzte, koipuk sar ez daitezen. Bertze anitzek arteak jartzea erabaki dute, hartara koipuekin bukatzeko. Arriskua, hala ere, hor dago, artean erortzen ez badira baratzeak jai baitezakete. «Le-

txugak, azak eta gisako bertze barazkiak jaten dituzte, baratzeak denbora gutxian deseginez», dio Manolo Romerok, Berako ehiza eta arrantza elkarteko lehendakariak. Ez ohi dira uretatik asko urruntzen. «Gehienbat erreka bazterretan dauden baratzeetara jotzen dute, eta bizimodu urtarra egiten dute ia erabat».

Orain 15-20 urte agertu omen zen inguruotan. «Aspaldidanik bizi da gure artean, ez da kontu berria. Hego Amerikatik ekarri zuten Iparraldeko granjetan hazteko, Ainhoan eta Biriatuan». Igaraba edo nutriaren antzeko

larrua du nonbait, larru fin-finekoa baita. Larrua berokiak egiteko erabiltzeko xedearekin egin zituzten haztegiak, igaraba larruzko berokien imitazioak egiteko. Denbora gutxian, baina, proiektuak porrot egin zuen, koipuren larruagatik ordaintzen zutena izugarri jaitsi zelako, eta haztegiak itxi egin ziren. Hala ere, koipuk bertan gelditu ziren, eta haztegietatik ihesi abiatu ziren, errekan bizitzeko.

Itxura itsusia

Gibelaldeko hankak palmideok dituzten koipuk, letagin handiak,

ibilera mantsokoa da eta igerilari trebea ere bai. Itxuraz oso itsusia da, hagitx itsusia hurbiletik ikusi dutenentzat. Burua izugarri handia omen du, buztana luzea eta satorraren antzeko larrua.

Kalte baratzeetan baizik egiten ez duenez, Nafarroako Gobernuak Ingurugiroko Sailak ez du plan berezirik garatu koipuk desagertarazteko. Arrantzaleek eta nekazariak animalia horretatik ale anitz hiltzen badituzte ere, ez dago debekatuta koipuk hiltzea. Zenbait baserriarrentzat arazo diren arren,

arrantzaleek eta ingurugiroko arduradunek, oro har, ez diete kasurik egiten. «Desagertzen badira, ez da ezer gertatuko, lasaiago agian, baina eragiten duten kaltea saihestea ere erraza da. Epe ertainean ekar ditzaketen ondorioak ezagutzen ez ditugunez, komenigarria litzateke, hala ere, desagertzea, hau ez baita haien jatorrizko tokia eta bertako espezieentzat eragina eduki baitezakete», diote arrantza eta ehiza elkarteko kideek.

Egun eskualdean dauden koipu familien kopurua zehaztea zaila bada ere, gizakjarengandik urrun bizitzea atsegin omen dute, lasaitasunean. Kolonietan bizi dira, nahiko ongi finkatuak. Beran bertan, Bidasoa ibaiaren uhartetxoetako batean bizi omen dira, sasi artean, eta handik ibaiaren gurutzatuz baratzeetara hurbiltzen dira. Zalain auzo inguruan eta Zia errekan Bidasoekin bat egiten duen gunean ikusi izan da gehienbat koipua, baina ez hor bakarrik. Beran ez ezik, Bidasoa ibaiaren osoko herrietan ere ikusi izan da, Elizondo bitarte bai behinik behin.

→ Jon Abril

metropoli forala

FELIPE RIUS



Orkestrak azken momentura arte jo behar du. Hala egin omen zuten *Titanic*-eko musikariek eta horrek desberdin egin zuen beren heriotza, heroikoagoa, are epikoagoa; gainerako bidaiariek txalupa batean tokiren bat, irtenbideren bat, mirariren bat bilatzen zuten bitartean, haiek, biolina ferekatuz, artista batek eman dezakeen kontzerturik onena eskaintzen saiatu ziren, beren bizitzetako emanaldirik garrantzitsuenak, nahiz eta ederki zekiten inork ez ziela adituko. Zoriontsuak izan al ziren musikari haiek une batez besterik izan ez bazen olatuek irentsi aurretik? Zerk bultzatu zituen azken momentura arte jotzera? Profesionalak ziren, jotzeko ordaintzen zieten eta profesional batek ez du eszenatokioa nolanihi uzten. Beharbada betidanik kontatu digutena eta Cameronek bere filmean azaldu duena gezurra da eta lasterka hasi ziren lehenbizikoak musikariak izan ziren, baina ez du-

gu holakorik imajinatu ere egin nahi, leienda ederra baita, dena suntsitzen den bitartean salbaziorako aukera bakarra partitura batean aurkitzen duen artistaren irudia guztiz hunkigarria da.

Fikzioz eta itxurakeriaz beterik omen dagoen herri edo dena delako hau ere hondoratzen doan itsasuntzi bat baino ez dela ematen du askotan eta bakar-bakarrik azken momentura arte eszenatokioan geldituko den orkestra bat falta zaigu lasai ederrean desagertzeko, Hondamendiaren Orkestra Sinfonikoa. Alta, deskalabrua berehala gertatzen ez bada, gero eta zailagoa izanen da musika tresnaren bat jotzen dakiten heroiak aurkitzea. Eta «hemen datza herri bat izan zena» estiloko esaldiak izkribatuko dituzten kronistak ere ez dira aise topatuko, hemengo hizkuntzarik zaharrenean naturaltasunaz idazteko gauza direnak, behintzat, hizkuntzarena beste fikzio bat baita batzuentzat; badi-

rudi ahaztu egin zaigula Beckettak eta Cioranek, beste askoren artean, beren amarena ez zen hizkuntza batean idatzi zutela. Gainera, biek äsko zekiten mota guztietako naufragioez. Beharbada hori da gure arazoa, gauzak ahaztu egiten zaizkigula, Alzheimer gaitzak jota gaudela eta ez dugu gogoratzen nondik gatozen, zer garen, nora goazen eta gauean norekin gelditu garen afaletzeko. Hala ere, deusek ez gaitu kezkatzen. Zertarako nahi genituzke horrenbeste oroitzen? Zertarako gero betetzen ez diren horrenbeste plan eta proiektu? Memoriarik eta borondaterik gabe errazagoa da dena. Azken ordua iristen zaigunean *Titanic*-eko bidaiariek baino lasaiago jokatuko dugu, honez gero ongi baitakigu orkestra on baten musikaz eta whisky trago batez askoz ere animatuagoak eta arinagoak izaten direla tragediak, pertsonalak nahiz kolektiboak.

• Iruñea •



LAN ONDARRA

Heldu dira Inauteriak

Inauteriek Iruñeko karrikak hartuko dituzte bihartik aurrera. Iruñean benetako mozorro festa Urtezahar gauean ospatzen bada ere, Inauteriak indarra hartzen ari dira urtetik urtera. Hala esan zuen behintzat aurtengo egitarau oparoaren aurkezpenean Koldo Monrealek, Iruñeko Kauteren Elkarteko lehendakari eta *La Ondarra* kultur aldizkariko arduradunak. Festa bihar goizean hasiko da Sanduzelai eta Arrosadia auzoetan. Alde Zaharreko koadrilak goizeko 10:30etan elkartuko dira San Lorenzo elizaren aurrean, eta arratsaldez 200 musikari eta 1.000 lagun inguru aterako dira mozorroturik. Aurten, elbarriek ere izango dute jaiari parte hartzeko aukera, San Lorentzora hurbiltzeko autobus bat jarri baitiete propio.

Donesaturdiko oilarra lumatzen
Juan Kruz Lakasta

Juan Kruz

Juan Kruz Lakasta naiz, 27 urte ditut, eta zutabe hau bete behar izan dudalarik ez zait deus bururatu. Burua hankaz gora jarri dut, baina ez da istoriorik erori. Istorioren bila, oroitzenen murgiltzen saiatu naiz, baina sikatuta topatu dut neure burua. Beste hainbatetan bezala, egunkarietara jo dut, sormenaren gar itzaliak berpiztuko zituen txinpartaren bila, baina alferrik. Ez dut zutabea betetzeko ezinbestekoak zaizkidan sormen sugarrak pizteko txiskero egokirik topatu.

Oharkabea, egunkariko orriak pasatzen segitu dut, begirada ezintasunean galduta. Ohartu gabe, orrialde nekrologikoetara heltzean orriak pasatzeari utzi diot. Konturatu gabe, begirada ezintasunean galduta izatetik begirada eskeletan finkatuta edukitzera pasatu naiz. Nahi gabe, *Adiorik ez, gero arte baizik* zioen eskeleta irakurri dut. Supituki, argia ikusi dut. Ordea, ez da izan tunelaren amaiera iragartzen duen argia, zutabe berri baten jaiotza iragartzen duena. Kontrakoa izan da. Zutabe honen heriotza iragartzen duen argia ikusi dut, ulertarazi didana zutabe hau hilik dagoela, eta *gero arte* esateko ordua iritsia dela.

Pentsatu dut *ez dela adiorik, gero arte baizik*. Pentsatu dut *urak dakarrena urak daroala, eta zutabe honek emandakoa, inprimatuta geratzen dela*. Pentsatu dut *zutabe hau sortu zen enbor beretik sortuko direla besteak*; izan ere *zutabe honek ereindako hazitik, sortuko dira literatur zuhaitzak, zutabearen distira ez baita inoiz itzaliko*.

Hori guztia pentsatu eta gero, begirada orrialde nekrologikoetatik aldendu dut. Orduan bestelako kontuak etorri zaizkit burura. Bururatu zait aurrerantzean EGUNKARIAKO azken orrialdeko zutabea soilik idatziko dudala. Bururatu zait aurrerantzean beraz hilabetean bi zutabe idatziko ditudala, eta ez sei, azken boladan bezala. Bururatu zait horrenbestez aurrerantzean zutabeak kontu handiagoz egin ahal izanen ditudala, neure burua behartu gabe. Bururatu zait akaso zutabeetan azken boladan lortzen ez dudana biribilatasuna lortu ahal izanen dudala. Bururatu zait akaso egokiagoa izanen dela esatea *gero arterik ez, adio baizik*. ●

Lizarra

'Elgacena' aldizkariaren beste ale bat karrikaratu dute

LIZARRALDEKO ELGACENA literatur aldizkariaren beste ale bat aurkeztu berri dute Javier Corres, Miguel Garcia Andres, Josu Reparaz eta Cristina Larra erredakzio kontseiluko kideek. Aldizkariaren 20. alean hogeita bat idazle, olerkari, argazkilaria eta eskultoreen lanak bildu dituzte, eta euskarazko idazlanak ere aurki daitezke. Juanjo Olasagarreren *Labanaren aholkua euskaldunet olerkiaz gainera*, beste hiru lan daude: Jose Maria Utergaren *Parrak eta inparrak*, Ana Urkizuren *Beroki Berdea* eta Jose-txo Serranoren *Janelak*. Gaztelaniazko eskaintza ere oparoda: Leopoldo Maria Panero, Angela Serna, Carlos Pujol, Jose Ortega, Jon Obeso eta Eli Tolaretxipiaren lumaz goza daiteke orrialdeak pasa ahala. Halaber, atzerriko idazle eta olerkari lan ugari dago. Aldizkariaren lehen orrialdeetan Stig Dagerman sueziar idazlearen *Matar a un niño* testua jaso dute, eta ondoren Kalus Ribjerg danimarkarra, Claes Anderson finlandiarra, Rose Ausländer judutarra eta Patrizia Cavalli italiarra ageri dira.

Hurbileneko idazleek ere badute tokirik *Elgacena*-ren azken alean. Jabier Corres, adibidez, Lizarrako eskultore Carlos Zirizaren inguruan idatzi du *Carlos Ciriza, la materia emocionada* izenburupean. Bertan, idazleak eskultorearen

lanak ikustean jasotzen dituen sentimenduak adierazten ditu. Halaber, *Elgacena* erredakzio taldeko bi kidek, Miguel Garcia Andresek eta Cristina Larak, idazki bana argitaratu dute. Aldizkariak 62 orrialde ditu eta liburu dendentan 350 pezetan dago salgai. 700 ale karrikaratu dituzte.

→ Kristina Berasain

Lekunberri

Inoteak berreskuratuko dituzte aurten

ASPALDIAN EZ DA LEKUNBERRIN INOTERIK ospatu. Jendearen partehartzea gero eta murriztagoa zela eta, bat-batean, inor konturatu gabe kasik, bertan behera geratu zen ohitura zahar hori. Baina herriko zenbait laguni ohitura hori berreskuratu beharrekoa zela iruditu eta aurten berriro inoteak ospatzea bururatu zitzaion. Ideia aurrera ateratzeko, laguntza eskejo zuten Mitxausenea Kultur Etxera. Horrenbestez, otsailaren 14ean, San Balentin egunean, jaia izango da Lekunberrin.

Goizeko 09:00etan goiz-soinuak izango dira herri guztian. Eguerdietan, hamaiketako izango da Gau-Txori elkartearen. Hori bai, hamaiketako egin nahi duenak, mozorrotua beharko du egon. Gero, denak kalejiran joango dira etxetik. Gainera, lagun berezi bat izango dute erronda honetan: Aittezarko. Aittezarko Larraungo inoteetako pertsonaia propioa da, Lantzeko Miel Otxinaren parekoa. Jantzera berezia du, kolore biziz beterikoa. Urte pilo batez larraundarrekin ikusi ez duten laguna aurten berriro ere beren artean izango dute, beraz.

Festak 22:00etan jarraituko du. Ordu horretan herri afaria izango baita. Eta sabela bete ostean, kontzertua Lekunberriko gaztetxean. Brigada Slam eta Eka taldeak izango dira bertan, denak dantzan jarri nahian.

Larraunen oso gutxi dira aspaldiko inoteak mantentzen dituzten herriak: Uitzeta eta Oderiz. Uitzetakoak, esate baterako, Eratsungoekin batera Nafarroan os-

patutako lehenak dira. Araitz-Betelun ere izan baziren. Santa Ageda egunean ospatzen ziren Arribeko inoteak, esaterako, antzara joko eta guzti izaten zuten. Baina, horiek berreskuratzeke zenbait saio egin diren arren, bere horretan gelditu dira berriro ere.

Egun bakarrekoak izango dira aurtengo Lekunberriko inoteak.

→ Urko Aristi

ihauteri aroa **14-24 otsaila**

iruñeko ihauteria

- IHAUTERIA ZUREA DA - STOP -

- AURPEGIA MOZORROTU - STOP -

- LAGUNAK ZUREKIN EKARRI - STOP -

Otsailak 14
(hainbat ekitaldi gain)

11,00etan, San Lorenzo kaletik, Katedralaraino irteera. Bertan, Pregoia irakurriko da.

18,00etan, San Lorenzo kaletik, Ihauteri Martxaren irteera.

Otsailak 15 arte, Erdi Aroko Tokadoen erakusketa, La Perla Hotelean.

Antolatzen du: Caldereros de Pamplona Iruñeko Kauterak

Laguntzen dute: CAJA RURAL DE NAVARRA NAFARROAKO RURAL KUTXA

Jose Maria Jimeno Jurio

Historialaria

«Nafarrek orokorrean ez dakigu deus euskarari buruz»

Jose Maria Jimeno Jurio historialari nafarra asaldatuta dabil azken boladan, Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria eta Sabino Arana Kultur Elkargoaren *Bizitza osoko ibilbidea* izenekoà eman dizkiotelako berriki. Ez du gustuko hainbeste laudorio. Ikertzen jarraitzen du eta aurki euskararen inguruko berri gehiago aurkituko dituen itxaropena du.

■ **Joan den ilbeltzaren 25ean Sabino Arana Kultur Elkargoaren Bizitza osoko ibilbidea saria jaso zenuen eta aurki Eusko Ikaskuntzarak Manuel Lekuona saria emanen dizu. Nola hartu duzu hainbeste laudorio?**

Harritu egiten naute eta neure onetik atera, eguneroko lanetik aldentzen naudelako. Sariak jasotzea ez da ohikoa. Nahiago dut betiko normaltasunean lanean jarraitu eta ez hainbeste aitoprenek sortzen duten zalapartarekin bizi.

■ **Kaleratu duzun azkeneko liburuan, *Nafarroa, euskararen historia*, hizkuntza horren inguruan askok zituzten aurreiritziak hankaz gora jarri dituzu. Lortu duzu nahi zenuena?**

Bai. Aspaldian nenbilen euskararen inguruko materiala biltzen. Artikulu solteak publikatu nituen eta artxibategiak ikertzen ari nintzela konturatu nintzen aurkitutakoarekin asaldatzen zen lehena ni nintzela. Nafarrek orokorrean ez dakigu deus euskarari buruz. Nafarroako Erresuma izandakoan euskarak zuen esparruaz eta sakontasunaz ideia erabat okerrak ditugu. Badira liburu batzuk eta, batez ere, Aingeru Irigarainen *Nuevos testimonios de la lengua Vasconica* (Baskoniako hizkuntzaren testigantza berriak). Oinarritzak izan da, guztiok erabili dugun gidaliburua. Baina duela urte asko idatzia da, eta geroztik aurretik esandakoak zuzendu ez baina askozaz gehiago zehaztu dituen material berria atera da. Hainbatetan entzun izan dugu Iruñean inoiz ez dela euskaraz hitz egin, eta, hortik behera, oraindik gutxiago. Horrek ez du funtsik, errealitatea onartu nahi ez duen politikoko baten ikuspegitik ez bada behintzat. Datu asko bildu ditut eta ikuspegi orokor bat emanez aurkeztu nahi izan ditut.

■ **Zurearekin batera euskara eta Nafarroa uztartzen dituzten ikerketak gero eta ugariago dira. Zer iruditzen zaizkizu?**



«Hainbeste sariak harritu egiten nau eta neure onetik atera, eguneroko lanetik aldentzen naudelako»

Jakinmin handia dago. Nafarroan hizkuntzaz kezkatzen diren unibertsitate mailako euskaldun asko daude. Iruñean ditugun bi unibertsitateak (NU eta NUP) euskararen oso aldekoak ez izan arren eta euskara sustatzen saiatu ez arren, bada tesiak euskaraz egiten ari den euskaldun talde bat. Orain arte ez zen uste horrelako formakuntza bazegoenik eta ikerketarik egin zitekeenik.

■ **Bestalde, euskaraz ikasten gero eta jende gehiago ari da. Adibidez, Nafarroan aurtengo ikasturtean haurren %54 euskaraz eskolaratu dira. Baina, aldi berean, kontrako jarrerak sumatzen dira. Bi dinamika ezberdin daudela esan daiteke?**

Orain arte ez zegoen arren, euskara ikasi, irauarazi eta babestu nahia oso handia da Nafarroako toki batzuetan: Erribera, Erdialdea eta Iruñea, dudarik gabe. Bestalde, ordea, indarrean dauden xedapen askok oztopo asko jarri eta atzerapauso ugari sortzen dute. Badirudi euskararen garapena trabatzeko eginak daudela. Bi gauza erabat kontrajarririk dira. Maiz gogoan dut euskaraz dakien jendeari gehiago mintza dadin esateko. Joan den mendetik hona euskara inoiz ez bezala entzuten da Iruñeko kaleetan. Dena den, gehiago behar lukeela uste dut. Ikastoletatik atera den jende euskaldun asko euskaraz apenas mintzatzen den irudipena dut.

■ **Ezin ukatu, era berean, agintean dagoen Gobernuak ez duela bidea errazten: 1986ko Euskararen Legeak egindako zonifikazioa, euskarazko irratiei ukatzen zaizkien lizenziak...**

Bai, egia da. Triste da. Edozein herritan, Tafalla kasu, bertako telebista dute. Aldiz, euskaldunak maiz kategoria ezberdineko biztanleak bezala edukitzen dituzte.

■ **Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?**
(Hasperen egiten du). Gobernuak ez du erreali-



Jose Maria Jimeno Jurio historialaria, izkribu tartean, eteko bulegoan. Luis AZANZA

Txinaiaren lana

Jose Maria Jimeno Jurio historialaria eta dibulgatzailea Nafarroako Artaxona herrian sortu zen duela 71 urte. Gaztetatik hasi zen ikertzen, eta *Nafarroa, herri kulturako gaiak* bilduman berrogei gai baino gehiago argitaratu ditu. Etnografia, etnologia eta toponimiako hainbat lan egin ditu eta *Nafarroako etnografia eta etnologia kuadernoak*, *Fontes linguae vasconum* eta *Principe de Viana* aldizkarietan kolaboratzen du. Aldi berean, liburu mordoak kaleratu ditu: *Artaxonako Erdi Aroko dokumentuak (1070-1312)*, *Non izan zen Orreagoko gatazka?* eta *Nafarroa, euskararen historia*, besteak beste. Denak aipatuz gero, akaberarik gabea litzateke artaxo-

narrerrenda. Txinaurriarena bada berea, egunerokoa eta. Egun euskarak burua eta haren inguruan aurki ahalago ezagutuko direla uste du.

Hala o Jurioren egunerokoa dena, eta aisialdirako ere badiruditegiak zabalik direla eta, goizean ikertu egiten du. Berriz, Iruñeko txokoretan, Blurdana eta Gazteluko iturrietan, Takonerako lorategiara atera ohi da emaztearekin. Hori ere joaten da noizean behin egotea oso gogoko du. Hori ere badu umorea

eta azken boladan hiletan askotara joan dela gehitu du.

Bizitza gero eta azkarrago badoaio ere, oraindik egiteko asko duela dio xumeki eta irribarretsu. Pena bat du bizitzan, euskara ikasi ez izana. Azken urteotan zerbait aritu den arren, burua oso gogorra omen du. «Lehentasunak ezartzen dituzu eta adin batera iritsiz gero burua oso gogorra dago. Hogei urte gutxiago dituzunean baino denbora askoz gehiago eskaini behar diozu. Askotan pentsatu dut seriozki hastea beste gauza batzuk baztertzuz. Baina, adin honetan, esku artean dudana ateratzen dut edo bestela... Dena den, idazkaria euskalduna dut, bukatu du.

tatea onartzen. Era berean, zerbait komunikabidek biztanleriaren zati oso garrantzitsu bat euskarari aurrez aurre jartzen ari dira. *Nafarroa, euskararen historia* liburuarren azkeneko kapitulua idatzi behar nuenean, errealtatean kontra asko dagoela ikustean gogaigabetuta nengoen. Euskararen aurkako botere politikozozialen indarra eta ballabideak garrantzitsuak dira. Etorkizunera begira, lan egiten jarraitu beharko dugu, eta ea denborarekin aurrera goazen, gutxinaka bada ere. Ni ez naiz profeta, eta indarren arteko alde ikusita heldurra dut. Baina, era berean, inoiz ez bezala, itxaropenerako arrazoiak badira, asko euskararen alde borrokatzen ari dira esfortzu ekonomiko eta sozial handia eginaz. Herria ez dute akatuko eta herri horrek, gutxiengoa izan arren, bide berriak irekitzen jarraituko du.

■ **Beraz, zure iritziz agintean dauden indarrek enfrontamendua bultzatu nahi dute?**
Nik ez dakit enfrontamendua nahi duten, hori ezin dizut baieztatuz. Egiten ari direna da euskararen garapena trabatu, oztopatu eta gelditu. Zergatik? Nahitaez politikarekin uztartzen dutelako eta uste dutelako euskararekin loturiko gutzia sustatzea eta zabaltzea ETA eta abar bultzatzea dela.

■ **Egun nazionalismoei eta gutxiengo kulturei...**

«Euskararen aurkako botere politikozozialen indarrak eta ballabideak garrantzitsuak dira. Dena den, herria ez dute akatuko eta herri horrek, gutxiengoa izan arren, bide berriak irekitzen jarraituko du»

rei erasotzea modan da. Espainiako Kultura eta Hezkuntza Ministerioak Humanitate ikasketak batzeko plana kasu.

Betidank ikuspegi politiko batzuetatik egin dena egin nahi da orain ere. Hau da, Espainia bakar, handi eta librearen ideia defendatu. Guztia aurretik Espainia dago, eta horrek historia desitxuratu besterik ez du egiten. Historian Espainia ez da izan joan den mendera arte. (Eskuan Fernando III.aren garaiko txanpon bat hartzen du eta bertan dioena irakurri: Ferdinandus III, Navarre rex. 1833). Hots, 1833an Espainia ez zen Espainia estatu batua. Horrela izan balitz «Fernando III.a, Espainiako errege» jarriko zuen diruan. Ez zen ez Fernando VII.a, ez Fernando IV.a, baizik eta Fernando III.a, Nafarroako erregea. Pertsona bera zen baina errege ezberdina. Hori guztia da Esperanza Agirre ministroak gainetik kendu nahi duena. Berak, historian zehar izan diren ezberdintasun politiko eta kulturalak nabarmendu gabe, Espainia bakarra eta banaezina aurkeztu nahi du. Hori ezin da horrela izan, eta historia hor dagoen errealtate da.

■ **Euskararen inguruko izkribu gehiago agertuko dira?**
Nik uste baitez. Erret Kontseiluko fondo izugarriak erdi arakatuak daude. Ongi eta sakon ikertuak daudenean gauza asko aterako dira. Batez ere dialektologiako datu oso interesgarriak aurki daitezkeela uste dut.

■ **Gazteagotan, batez ere etnografia, etnologia eta toponimia lanak egin zentituen. Nola oharitu zinen euskararen presentzia, nola zeureganatu zenuen gaia?**
Ez dakit. Aspaldidanik banuen jakinmina. Kulturaren zurrubiloan sartuak gaudenoi ezezaguna egiten zitzaigun zerbait ezagutzeko premia sentitu dugu. Nola, noiz arte, non hitz egin zen euskaraz jakiteko gogoia. Euskara bereziki ikertu nahi izan gabe, aiton-amonak galdekatzuz edo elizetako artxibategiak begiratzuz egindako ibilbideetan materiala biltzen joan naiz. Azkenean, ikastolen berpizkundearekin edo, hasi nintzen gehiago sartzen artxibategietan. Batez ere Elizbarrutikoan ibili naiz eta goitik beheiti ikusi dut, euskararen nondik-norakoak jakiteko asmoarekin. Benetan mauka izan da; Aingeru Irigarai bildu zituen datu batzuk, baina ez zen horien azterketa sistematikorik egin.

■ **Folkloreari eta tradizioei buruzko idatzi ugari egin dituzu. Bizimoduak aldatu ahala horiek ziztu bizian galtzen ari diren susmoa nabarmena da. Gutxi barru zure izkribuetan begiratzuz gogoratuko ditugu?**
Ustekabean hasi nintzen horrelako lanak egiten. Barandiaranen inkesta aplikatzen aritu nintzen Artaxonan, nire herrian. Lehenbiziko emaldia bukatu eta igorri nuenerako, itaundu nituenen erdiak hilak zeuden. Jende zaharra hiltzen den aldiro, mundu bat darama berarekin. Nik Artaxona ongi ezagutzen nuela uste banuen ere, zahar haiek kontatu zizkidatenak entzutea inoiz susmatu ez nuen mundu batera itzultzea izan zen. Orduan hasi nintzen buru-belarri lanean. Banekienez garai haietara itzultzea ezinezkoa zela, jaietunak eta asteburuak informazioa berreskuratzeko erabili nituen. Urte gutxitan pasatu gara Historiaurretik gertuago zegoen bizimodu batetik haren deus ikuspegiarekin ez duen batera.

■ **Orain, zertan ari zara?**
Momentu honetan 1480tik 1508ra arteko Tafallako Udaletxeko aktak transkribatzen harraipatu nauzu. Gainera, izkribu horien letra bihurtu bista galarazten ari zait.

■ **Zer asmo dituzu etorkizunerako?**
Pixkanaka bada ere, gordeak ditudan materiala atera nahi nituzke. Orain eskuartearen dudan lana izugarria da. Informazio ugari osatzen eta prestatzen ari naiz Eusko Ikaskuntzako Euskal Herriko Erdi Aroko Iturri bilduman sartzeko. Era berean, ohiturei eta usadioei buruz egin ditudan galdeketa landu nahi nituzke. Argitaratu nuen *Nafarroako Jaien Egutegia* osatu nahi nuke; negua eta udaberria kaleratu nituen, eta orain uda eta udazkena gelditzen zaizkit.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Euskal idazle bidaiariak

Pierre Duhour euskaltzain urgazleak liburu bakarra utzi zigun, nahiz 1914.etik aitzina Iparraldeko hainbat aldizkari eta egunerokoetan bere artikuluak agertu



MARTIN DUCQ HAZPANDARRAREN *Erroma eta Jerusalem* liburuaren berri eman genuenean -Baiona, Lasserre, 1891-, euskaraz tajutu literatura bidai liburuek izan duten oihartzun urriaz baginen ihardoki, Ibon Sarasolak klasikoen bildumarako apailatu zuen Jon Izurategiren *Jerusalem-go Osteran amari idazkijak* 1923.eko liburuaren edizio berrian, bestalde, jada aipatzen zuen gauza. Hark, bi baizik ez zituen aipatu adibide gisa, Etxepareren *Berebilez* arras ezagun dena eta Anabitarteren *Aprikako basamortuan* hain ezaguna ez datekeena, baina soberan ez legoke, alta, gutxi esaten denean, deus ere ez dela esaten gogoraztea.

Aipatu Jon Izurategi Berrostegietan bilbotarra, Gorlizko eta geroxeago Elorrioko erretorea izan zena, omen handiko predikaria genuen, idazlearena ere garaikideei larregi atzundurik geratu ez zitzaiela. 1937.ean, abertzale zelako aitzakiaz, faxistek gartzelaratu zuten eta Dueñasko espetxean hil zen urtera. Orduko hainbat paperetan idatzi zuen, berbarako, *Euskaltzale*, *La gaceta del Norte*, *Jaungoiko-zale*, edota *euzkadi...* eta liburu gisa ere, zenbait lan atera zuten: *Umechue jauna artuterako berbaldi laburrak* -1912-, *Urteko igande guztietako goizpar edo ebanjelioak* -Bergara, 1934-, edo guri dagokigun *Jerusalem-go osteran amari idazkijak* -Zornotza, Jaungoiko zale, 1923-, 1905.ean Palestinara eginiko bidaiaren amari bidali 46 gutunen bilduma.

Izurategi bere eskutitzak ondu baino urte batzuk lehen-txeago, Txomin Agirrek *Juan etorri bat Erromara: biajari baten ziabertzxoak* izenburuko argitara eman zuen *Euskal Erria* aldizkarian, 1892. urtean hain zuzen, 1899.eko *Euskaltzale*-n berragertu zena: «Gomutagarria da Erroma, goitandiak bere eleizak, ikusgarriak bere musagak;



alaita da Napoles, biziak bere jentia eta urdiña ta zabala bere baia; ikusgarria da Besubioa, gogoangarriak Pompeiak kale bakarrak; ederrak dira Italiako lur, soro, masti ta zelai guztiak, mendiyak, arkaitzak eta zerua; baña biotzaren erdian utsune andi bat daukat, desio ta esperantza bat biztuten jat: Italia ezta Euskal-Erria».

Beskoitzen 1890.eko ekainaren 20an sortu Pierre Duhour euskaltzain urgazleak liburu bakarra utzi zigun, nahiz 1914.etik aitzina Iparraldeko hainbat aldizkari eta egunerokotan bere artikuluak agertu-, eta horixe, Agirrerena zein Ducq-ena bezala, bidaiari zehatz baten inguruan: *Erromako itzulia*, Baionako La Presse moldiztegia 1931.ean ageri zena -aurretik *Gure Herria*-ko orrietan aldika eman bazuen ere-. Lanbidez arrantzalea izanikoa, Hazparneko gizarte-segurantzian bukatu zuen bere bidaiari 1968.eko urtarrilaren 18an.

Jada aipatu Agustin Anabitarte Irazu donostiarrak (1891-1981) bidaiari lanbide bihurtu zuen, merkataria izanki. Euskaltzain urgazlea ere, Hegoaldeko aldizkarietan ihardun zuen batik bat: *Euzkadi*, *Euskal Esnalea*, *Gipuzkoarra*, *Euskera*, *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, *Gure Herria*, *Argia*, *RIEV*. Nobelagile aparta omen, Mitxelena laudoriozkoak eskeini zizkion *Egan*-en:


«Euskal-eleberrigileetan gehiena dugun Anabitarte jauna». Ondu zituenen artean, eta *Usauri*, *Donostia* eta *Poli* hiru elaberriak beste baterako utzirik, gerrateak eragindako isilgunearen osteko *Aprikako basamortuan* aipatu beharra dago -Zarautz, Itxaropena, 1961, Kuliska sortaren 49 zenbakia-. Honetan Anabitartek bidaiari aitortzen du bere burua, debozioz eta beharrez:

«Nik lurralde guztietarako gogoia izan det beti, gauza berri asko ikusteko egarria». Horregatik, ez da harritzekoa Italia, Grezia, Turkia, Israel, Libano, Rodas, Egipto, eta oro har, Mediterraneo osoan barrena ibili izana. Abenturarik zailenak Saharan pasatutakoak zitzaizkion, eta horietan dira bere liburuan biltzen dituenak: «Gerra asi baño lenagoko kontuarekin ari gera, errialde ura, Aljeria, pake santuan bizi zan garaiek» -zoritzarrez, eta egunero ahanztarazten digutenez, oraino ere, itzuli ez dena-. Ibilbide luzanga da trenez, autoz, gameluz eta oinez Anabik, Aljerian zehar, Marseillan hasitakoa burutu zuena:

Aljer, Busaada, Biskra, Tugurt, Uargla, Gardaia, Beni Isgen, El Golea, Timimun eta Adrar, eta ezin pollitagoak hangok sortarazi zizkiotena: «Baginjoazen bada Kaxban gora, gero ta kale bildurgarriagoetan. Kasta guztitako ta jantzi guztitako gizona bazan. Baziran moruak eta beltzak, eta bien artekorik asko, ez oso abegi onekoak. Jendea erruz kaleetan. Baziran buru gañetik lurrerañoko jantziak txano ta guzti, eta baziran jantziaren bearrez zarpalez josiak, galtza putzak; baziran buru-jirako zapi zuriekin, buruko gorriak zituztenak eta gabe zebiltzanak, eta asko moduzko burukoekin zijoazenak. Emakumeak begiak ezik estaliak. Baño geiena arritu ninduana, nekari txilabaren azpian zapatak takoi luzeakin ikusteak. Emakumea beti emakume!».

etorri ahalean

Patziku Perurena



Karakolak eta euskaldunak

Jaques Blotek, Bidasoaz harunzko mendietako euskal aztarnategi zaharrak ikertzen urteak eman dituenak, honela dio paleolito garaiaz ari delarik: «*tresneria ere aldatzen da, eta arrantzari nola barraskilo bilketari egokitzen. Euskal Herriko harpe batzuetako barraskilo-maskor azal lodiak ikustea aski da, gaur hartan gasteropodo hori zenbat bilatua zen ikusteko*».

Joxe Miel Barandiaranek ordea, besterik esan zuen. Euskal mendietako aztarnategietan apenas azaltzen dela larreko barraskilo jaleen aztarnarik, eta euskal herritarren helikofobia, historiaurretik datorkiguna izan daitekela. Ez da mirari, gure arkeologo eta antropolo jaun jakintsuek askotan erabat elkarren kontrako diren kontuak ateratzea. Izanez ere, ikerleak, ezin bestean, nahi duen huraxe baizik ez baitu aurkitzen.

Horregatik nauzu ni hagitz eskeptikoa, kontu haundiotan; ez baitut uste gainera, euskal izatea aintzinate kimiko erromantiko batez apaintzeak, deustan hezitzen dituenik gure ezinizan honen erroak; eta gainera, parragarri samar iruditu izandu zait beti, zientziak horren aise ilun gorotzetik ateratzen duen argi esakto hori.

Egia da, Berako azterlan etnografikoan Julio Caro Barojak jaso zuen bezalaxe, beste euskal herri askotan ere, kanpoko arrotz jendea, koko jendea, jito jendea, jo izan duela «*karakoljaleztat*» euskaldunak. Eta gaur oraindik, nik neronek ere, arrotz jendea sumatzen dut maizenik karakol biltzen. Leitza inguruotan barrena. Eta ederki dator karakola, etxea bizkarrean ibilia den jendaje horren gaitzizen moduan, baina nago, paleolitotik eundaino holako jendaje asko euskaldun jatortua (?) ez ote den.

Azpirozarrak, esate bateko, «*karakolak*» ditugu izengoitiz. Jito sonako janari honegatik dut aditzea, baina, ba ote den

nago, herriska horretan hainbeste kokojende euskaldundu karakoljale, gure beste edozein herriskatan.

Konparaziora nik, euskalgiro hipokritak gero eta jitoagotzen nauen gizajo honek, bildu izandu ditut karakolak askotan, eta sarezu batean hamar dozena bat egunean zaitan eduki ondoren, kaxulka eder batzuk jan ere bai. Baita herriko usarioan, arrak eta emeak bereizten ikasi ere. Goizuetan: horixka lirain batzuk izaten ziren eme, eta haundi gizen nobleak ar; orain, egia esanen badut, sekula ez nien ikusi sexurik. Zozoa ni: gero ikasi nuen, *barrasaketak* zirela guziak.

Baina, egia zientifikoa esan, marraskiloa sortzez asiarra omen da, gizakiaren aurreneko jaki izana, eta lurraldeotara koaternario aroan iritsia gizakia-ekin batera, eta ikerleek aurkitu dituzten *karakol azaldeg* ugariek, batez ere paleolito eta neolito arokoek, argi erakusten omen dute gure arbasoen jaki preziatu izana dela. Nork esan, Caracoles!

Horregatik iruditzen zait harriarri bezain irrigarri, karakolik inoiz jan gabeko arraza zahar birjin bakarra euskalduna izatea. Alderantziz esan baligute ere: harpeak maskor ditugula, belarra janez bizitako azken karakoljende basati arrotzak garaela, gaitzerdi.

Orixek ere belarjaleztat geunzkan euskaldun zahar berritarrok, eta (neu barren) protoeuskaldun edo gutxienez paleoeuskalduntzat, berriz, jeltxide zahar edo egungo hatxebero turista sabatomingero iraultzaileon (?) ideologiak.

Erne beraz. Oraintxe ilbeltzean, gordeleketan lozorroan daudela, beren operkulutan itsatsiak, dira gozoenak eta garbienak karakolak. Bildu eta jan, arbaso zahar arrotz etxeko-tu haien ohoretan. Eta ahal izatera, «*caracol y trago*» eginez, gainera, behiala Angel ziztulari zenak bezala.

Ziria

• Motxorrosolo •

Txuri eta beltz

HASIZ GERO IBILBIDE LUZEKO POLITIKARI ANITZ ZENBATUKO GENITUZKE. NAFARROA Garaian ORT izan genuen 80ko hamarkadako politikagintza hornitu zuena. Beltza defendatzen zuten asko jende txuria bilakatu izana dugu hamarkada horren ezaugarrietako bat. Une berezuan, beltzetik zurira igarotzeko abilezia erakusteko kapableak izan badira; zuri eta beltza ez da soilik baztandarren ondarea. Mende akabera honetan, are zailagoak ezagutuko ditugu. Aurki, Manolo futbolari ohia Numancian aurrelari ibili zen Miguelerin alboan ikusiko omen dugu. Jamaika ikusteko jaiok omen gara, beste batzuk Arizabalagako Iranzu ostatua izan zen horretan bestelako errepublika dute xede.

Asun Goikoetxea

Margolaria

«Artearen zurrunbiloan egon nahi duenak ez du Arcon izan beharrik»

Herenegun hasi eta datorren asteartera arte iraunen duen Madrilgo Arco arte garaikidearen azokan egonen da Asun Goikoetxea margolari bakaikuarra. Artistak Bilboko Vanguardia galeriaren txokoan hiru lan erakutsiko ditu. Azokara joatea nahitaezkoa ez den arren, besteek egiten dutena ikusteko eta norberarena erakusteko toki aproposa dela uste du.

soslaia

MADRILGO AZOKARAKO PRESTAKetak egiten lanpetuta ibili da egunotan. Hala ere, gustura mintzatu da bere artelanaz zein etorkizuneko asmo eta proiektuez.

■ **Arcora hiru lan eramanen dituzu. Arte garaikidea biltzen duen Europako azoka garrantzitsuenetako bat dela diote. Zein da zure asmoa Madrilen?**

Espainiako Estatuan artelantangoan dagoen eskaparate handiengan nire lanaren zati bat erakustea. Batez ere, aukera dut egiten dudana azkeneko lana kanpotarrei ezagutzera emateko, eta, aldi berean, egiten dudana beste batzuenekin alderatzeko. Era berean, baliagarria da harremanak egiteko eta jendea ezagutzeko. Horrelako azoka, printzipioz, komertziala izaten da, nahiz eta egun ez duen funtzio hori betetzen. Gero eta ikusle gehiago dituen arren, saltzeko aukerak gutxi dira ez dagoelako bildumarako zaletasunik.

■ **Jarraitzen duzu argiarekin egindako pintura prozesuak ikertzen. Zer lan eraman dituzu Arcora?**

Uztaitetik abenduraino Parisen egon naiz, eta Madrilera eramandako lanak han eginak dira. Argiarekin margotzen saiatu naiz. Argiarekiko sentikorrak diren materialak erabiltzen ditut, papeira eta poliester heliografikoa (eguzkiarekin margotzeko teknika), hain zuzen ere. Horrela eguneroko argitasunarekin zuzenean lan egiten dut. Argiak eta momentuan dagoen hezetasunak hartzen dute parte. Argiak utzitako aztarnak dira nik gai kimikoekin manipulazten ditudanak. Oso eraginkorra den momentu bat dagoen bezalaxe, badago lasaiatasunerako une bat ere. Lana pausatzen uzteko garaia gaua izaten da normalean. Manipulazio guztiok irudia mugitzen eta koloreak aldatzen uzten didate eta baita ustekaberako aukera izaten ere.

Arte Ederrak EHU ikasi zituenetik, pinturarekin zerikusia duten hainbat proiektu izan ditu Asun Goikoetxeak, 35 urteko margolari bakaikuarrak. Lehen erakusketak Iruñean egin zituen, eta geroztik Espainiako zenbait hiritan eta Italian ibili da, besteak beste.

Iruñea eta Paderboren (Alemania) artean duten senidetzea aitzakiatzat hartuz, beste sei margolarirekin batera apirilean eginen duen erakusketan pentsatzen ari da. Goikoetxearen lanak eta Belen Flamarique, Angela Moreno, Marian Esteban, Teresa Izu, Rosa Silva eta Contsesi Vicenterenak 'Erase una vez' (Bazen behin) erakusketan izanen dira. Gero bueltan Nafarroako hiriburuan eskegiko dira.

Bilbon bizi da, eta, aitortu duenez, nahi baino gutxiago etortzen da Nafarroara. Euskal Herritik tarteka ateratzen jarraitzeko

asmoa du. Neguak hemen igaro eta udaberrian alde egin. «Gauza berriak ikustea eta Parisen beste artista batzuekin izan ditudan harremanak aberasgarriak izan dira oso. Hemen artiston artean giroa nahiko hotza da, eta faltan sumatu dut eztabaidatzeko aukera».

Aldez aurretik dena ez kontrolatzeak bultzatzen nau ikerketa bide honetan aurrera joatea.

■ **Artearen zurrunbiloan zerbait izan nahi duenak Arcon egon behar omen du. Egia da?**

Ez, ez da egia. Noizean behin etortzea ondo dago, baina ez duzu ezertan beti hor egonik. Bizirik zaudela adierazteko noizbehinka zerbait eramatea ondo dago. Hala ere, zure lana erakusteko gero eta galeria gehiago daudenez azokaren premia gutxiago duzu.

■ **Arcon artistak berak baino garrantzi handiagoa dute galeriek. Artistarentzako errentagarria da hara joatea?**

Gakoa da egindako ahalegina

nola ateratzen den. Zozketa modukoa da. Horregatik diot noizbehinka joatea ongi dagoela. Baina gehienetan galeristek nabarmenkeria gehiago daukate. Ohikoena da epe luzera etekinak ematen dizkizun proiekturen bat ateratzea.

■ **Arcon Nafarroako sei artista egonen bazarete ere, ez da herrialdeko galeriarik hurbilduko. Zergatik alde hori?**

Nafarroan badira galeria onak, baina arrazoi ezberdinengatik ez dituzte onartu Arcon. Alde hori gerta daiteke artista asko eta galeria gutxi daudelako. Gainera, gutxi horietatik azokaren jokoan parte hartu nahi ez duen bat bai-

no gehiago badago. Arcoren aldeko apustua oso garestia da. Batzuek uste dute ez duela merezi.

■ **Galeriarik joan ez arren, Iruñeko Udalak badaramatza urte batzuk Arcon arte garaikidea erosten. Badu zentzurik gero non gorde eta erakutsi ez dakienak artea erosteak?**

Ondo dago horrelako irizipide bat izatea, baina hori Arcon bakarrik egitea ez zait ondo iruditzen. Beste museo batzuk joaten dira Arcora eta begiratzen dituzte gauzak. Gero artisten tailerrak eta galeriak ikuskatzen dituzte, plan finkoa eta serioa eginez. Artean inbertitzeko beste modu bat da. Baina Arcora, besterik gabe, diru bat gastatzera joan gero beste guztia ahazteko ez da egokia.

■ **Nafarroako artista guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko galeriekin zoazte. Hango egoera hobea da?**


Nafarroan baino hobea bai,

behintzat. Hangoek urte mordo daramatzate Arcon erakusten, eta beste ibilbide bat egin dute. Nahiko zehaztua dagoen ildoa daramate estatuan zein estatutik kanpo dauden lanak erakusten. Hala eta guztiz ere, hemen badira oso lan ona egiten ari diren galeriak eta aurkeztu direnean ez dituztenak aukeratu.

■ **Etorkizunerako zer asmo dituzu?**

Argiarekin margotzeko proiektuarekin jarraituko dut, baditudalako oraindik bideak zabaltzeko. Bestalde, erakusketa batzuk prestatzen ari naiz. Hurrengoa Madrilgo San Fernando akademian izanen dut, martxoan. Apirilean erakusketa bera Parisko Cervantes Institutura eramanen dut, eta maiatzean Bilboko Vanguardia galerian bakarkakoa eginen dut.

→ Irene Arrizurieta



LUIS AZANZA

BEKARIO!

ZALDI ERDA



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Mahai zaharrak eta berriak

SARRI URTEBETE EGINEN DU EZKER Abertzaleak greba orokorrerako deialdia zabaldu zuenetik, behin-behineko espeteraturik zeuden HBko mahaikideen askatasuna eskatzeko. Ez zuten asmatu deialdia egiteko moduaz, euren kasa antolatu nahi izan zuten egun osoko lanuztea eta, Nafarroan behintzat, talde deitzaileen artean ere ez ziren denak iritzi berekoak izan. Orain, aldiz, mahaikideak gartzelaratu zituztenetik abantxi bi hilabete eta erdi joan diren honetan, harrigarria da hotsik ere ez entzutea haien egoerari buruz. Iduri zuen zigorra ezartzerakoan gizarteak burrunba gaitza sorra-razi eta luzaroan protestak hanpatuko zirela ogia orantzaren bidez hartitzen den gisan, baina harrabotsa urte zahar- rrekin batera iraungi eta ez da berriz ere izeki. Behar bada, horrek zer ikusia izan lezake HBren barrenean egiten ari den mahai berriaren hautaketabidearekin. Edota gerta liteke gaur egun talde horretan manua dutenek egoki ez iriztea gehiegi gogoratzeari, orain arteko mahaikideen espeteratzeak makur egin ez duelakoan. Erran nahi baita, «indarrean gabiltza eta gauza gara aitzina jo bidenabar bertze buruzagi-mahai bat berriatik osatzeko». Ez dirudi taldekide guztiak bat datozenik iritzi horretan, bat egiten dutenik mahai berriaren hautaketaren beharraz. Nolanahi ere, iritziak iritzi, ez omen zaio HBri (Nafarroan bederen) erraza gertatu kide berriak topatzea eta frankok ezetz erran omen dute. Horien ardura izanen da, betiere, talde politiko hori gidatzea larrazkenean auzarkeridegoan eta geurtz hemen iraganen diren hauteskundeetara. Alde horretatik, bozemaleek gaztigatu dutenez, bazter-tuxe utzitako beste alor batzuk ere landu nahi dituzte, gizarteko bertze esparru batzuekin hartu-emanetan sartu, baina hori guztia alferrikakoa izanen da ETAK bere horretan irauten badu, zama horren pean zaila baita harremanak egitea, boto gehiago biltzea edota botoen galera saihestea.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Alzoain:** Ke No Falte reggae taldearen kontzertua izanen da gaur, 23:00etan. Artsaia aretoan. Sarrerak 1.200 pezeta balio du.
- **Erratzu:** Su Ta Gar taldeak *Agur Jauna gizon txurtari* diskoa aurkeztuko du gaur, 23:00etan, frontoian.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri elkarteak antolatutako zinemaldiko egitarauaren barruan *Robin Hopd* eskainiko da gaur, Golem zinematokian, 20:00etan.

ERASKUSKETAK

- **Burlata:** Mintxo Lundainen lanak ikusteko aukera dago otsailaren 18a arte Kultur Etxean.
- **Iruñea:** Erdi Aroko kapelu erakusketa antolatu du Iruñeko Kauteroen elkarteak. Erakusketa hilaren 15era arte dago zabalik La Perla hotolean.
- **Iruñea:** Alfredo Diaz de Cerioren margolanak ikusteko parada duzuz Pintzel Galerian otsailaren 28ra arte.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Inauteriatz atzo eta gaur *Euskal Herrian* hitzaldia izanen da Aitzina tabernan, datorren asteartean, hilak 17, 19:30etan.
- **Iruñea:** Sagardotegia antolatu dute Aitzina tabernakoek datorren ostegunean, 21:30etan. Sarrerak tabernan daude salgai.
- **Iruñea:** Donibane auzoan inauteriatz ospatuko dituzte gaur eta bihar. Gaur Sagardo Jaia antolatu du. Auzokideei sagardoa eta gazta banatuko zaie. Bihar 09:00etatik aurrera eskean aterako dira eta arratsaldeko 19:00etan kaleji-

ra eginen da Nafarroako inauterietako pertsonaia ezagunekin.

- **Iruñea:** Mikel Zabaldi eskalataile iruindarrak *Eskaladak Europan* diapositiba emanaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, Nafarroako Kirol Elkarteak Jarauta kalean duen egoitzan.
- **Arantz:** Inauteriatz direla eta. A. M. Peñagarikano eta J. Soro-

zabal bertsoetan ariko dira egun osoan.

- **Iruñea:** Rafael Perez Sierrak, Espainiako Antzerki Klasikoko Konpainiako zuzendariak, *El perro del hortelano* Pilar Miro zinemagilearen pelikula izanen du mintzagai. Perez Sierrak filmaren gidola egin zuen.
- **Iruñea:** Patxi Venavent zinema kritikariak *Umorea* zinemaren mintzaldia emanen du gaur,

20:00etan, Iruñeko Kutxaren egoitza nagusian (Armada Etorbidea 2).

- **Altsasu:** Udalak, Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean, Sakanako folklorea ikertzeko dirulaguntza deialdia egin du. Lanak, gutxienez, 250 orrialdekoa izan behar du, irudiak aparte. Informazio gehiago Eusko Ikaskuntzan, 22-21-05 telefonoan.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

ARDO GORRI ETA BELTZ NAFARRAK



Nire gameluaren zain nago. Bortz pezeta eskuinean. Estafeta karrikan. Eri eta zikin sentitzen naiz. Bizirik bainoago, hilik. Horra hor, elastiko batez jantzita Ganimedes. Praka motza eta ugala soberakkoa. Ez da sekula garaiz heltzen. Beti berandu. Ikasi behar den lehen-dabiziko gauza. Egoteko beharra izanen duzu. Nere gameluaren zain nago. Bortz pezeta eskuinean. Estafeta karrikan.